

Frank  
be



MUSIKA  
ETA IRUDIA...

METROPOLIS

## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Esther Etxeberria

Xabier Azkue

### Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Gurenda Serrano

Itziar Garate

### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Haize Galarraga, Xabier Aranguren,

Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,

Izaga Garzia, Beñat Fernandez de

Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon

Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur

Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola.

### Uda musikaleko argazkiak

Aitor Bayo

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

943 86 15 45 tel.

### Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako

esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
gizartea <b>patagoniarako laguntza bila</b> .....	6
elkarrizketa <b>ĩnaki olazabal</b> .....	8
erreportaia <b>uda musikala</b> .....	11
orain hamar urte .....	17
<b>zumaya online</b> .....	18
olarru zopa .....	20
ibilbideak <b>haitz-gibel</b> .....	21
gure zumai zarra <b>jexux etxabe mitxelena</b> .....	24
kirolak <b>piraguismoa</b> .....	26
kultura .....	27
<b>laiako pintura erakusketa</b> <b>itaka</b> <b>udako zinema</b> <b>euskal jaia</b>	



elkarrizketa  
**ĩnaki olazabal**  
“Beti gustatu izan zait  
pintura eta eskultura  
elkartzea, bi  
espresibideak  
bateratzeko aukera  
bilatzea.”

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



**Zumaiako Udala**



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**kutxa**

gizarte ekintza



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



**GIPUZKOAKO**  
FORU ALDUNDIA

## Idolo ala lapajale?

Biak agian, auskalo. Hirutasun santuak argitu beharreko misterioa da, inondik ere. Badugu Getariarron kolonia txiki bat bertan, bat-batean burura datozkit Patxi, Rut, Sebas, Aloña... (muxu bat guztioi). Niri dagokidanez behintzat, ezin gusturago nagoela aitortu behar dizuet. Erraz moldatu naiz herrira, eta, hori guztia zuei esker izan da; mila esker (edo nahi dituzuen guztiak), beraz.

Baleikeko enbaxadoreak Erribera kalean harrapatu, eta kola-borazio hau egitea eskatu zidanean, nire buru getariarrak azkar erantzun zuen (julai amena!). Hala ere, ez dakit zergatik, nire ahotik hitz hauek irten ziren: Bai, motel, nola ez pa!.

Erraztasunak emateko edo, gay librean jardungo nuela esan zidan (badakit zein den, azkenik, hainbestetan erabilitako libre hitzaren esanahia). Y greko horrek baditu, bai, esanahi bat baino gehiago, eta, ezin uka, idazten hasteko bide eman dezakeela.

Iñigo Azkue Leunda



Hala ere, proposamenak berak iradokitako bidea alde batera utzi, eta jolas txiki bat proposatuko dizuet. Euskaraz argitaratutako pasarte, esaldi edo aipu bat idatziko dut zutabe(ar)en amaieran, eta kafetxo bat ordainduko diot nork idatzia den asmatzen duenari. Jolasaren asmoa, berez apalak izango diren zutabeak aberasteaz gain, hitzek adierazitakoaren inguruko gogoeta piztea da.

Gaurko aukeratutako hitzak, nire ustez, oso egokiak izan daitezke "gure" politikarien jarduna azaltzeko. Badirudi, maiz, konponbideak bilatu beharrean, haien nahiak asetzeko aitzakien bila dabiltzala, herritarren nahiari hainbat traba jarritz. Hona ba:

*"Badut problema bat irtenbide bakoitzerako"*

## Bero eta ixtu

Bero zitorrek uda, bero; eta ixtu!

Estalopian ibiltze geazenenak e ez gattuk oaintxe mollako aparkamien-tuan kabitzen.

Etzibilek beste kontuik inguruan, aparkamientua gora, aparkamientua behera. Ezin kabituan danok. Eta gañea bero!

Kuadrillan indako kontuetan mollan zibitian aparkalekuen erdiak eo zibek gaur egunian. Ta ez pentsatu geo eozein moutan indako kalkulak diazenik; alperrik ibili dek, ba, Damian, aparkalekuak banan-bana kontatzen mollan gora ta behera zebilen bitartian. Betitik izan dik Damianek buru ona numeruentzat eta etzian bat bea ere utziko kontau gabe. Konparaziyuak iteko planuak, berriz, Antonio deliniantiak in dixkik, leno aparkatze zan mouan sartze zian kotxiak beltzez eta oaingo arrasto madarikatu hoiek gorritz ondo-ondo markatuta.

"Hermano Luis" alu harek esate zian bezela "matematikak eta apai-zak ez die gezurrik esaten": leno bi aldiz kotxe gehio sartze huan mollan gaur egunian baño.

Ta horrek beti sortzen dik ze esana ta ze iña. Karlos sututa zibilek (beti izan dek pronto txarrekuia gizon hau) doble filan utziku duanan amenazuka egunero; Juan Marik berriz molla ta Amaia plazan "Bertakoak" eo "Betikuak" dianentzako aparkamientua eskatzeko firmak biltzen hasi bihar omen dik estalopian bertan mahaia jarrita; ta Antonio... Antonio etsita zikau, lurjota, garajien prezuyuak galdetzea jun eztek, ba.

Gañoitzeko kuadrilletan e antzeko komentayuak aitze txuk: aber zeatik hasi dian udan, kotxe gehien juntatze dan tenporadan, aber

kanpotarrak uxatu nahi txoun, aber Zautzan enbidiya dakaun... danetik aitze dek, baita bizikleten bidia jartze-ko ordua bazala ere.

Nik neuk etzikat inolako intentzioik nere iritzia emateko; jesukristonak eta bi aitu bihar izan dixkiat babes ofizialeko garajiak ziala ta etziala bai, ta hemendik aurrea kuadrillako izkribientia baino ez diat izan nahi.

Ta kuadrillan mila buelta eman da geo atea dixkiu gure ondorioak; ze egia dek "Hermano Luis"en garaian esplikazio gutxi eta belarondoko ugari jasotze huala, baño horrek ez dik esan nahi eskolaik ez dakaunik, ta urtien eskolak esate ziuk autoridadiak ez dula sekula santan dirua biltzeko aukeraik galtzen; horreatik, zea pentsatze diau kuadrillan: lenuo eo beranduo autoridadiak aparkatzeatik kobratu nahiko diula, bai, ditxosozko TAO, OTA, eo hola-kon bat. Ez dek gañia gure kuadrillan bakarrik aitutako komentayua. Ez ote deu holakoik ikusiko bizi gean artian, baño piatu hai zezena-kin.

Dana dala, ta biziik harrapatze baziuk e, ez huke txarra izango, Autoridadien aldetik Eusko Tren eta holakotan jubilatuentzat jartzen diazen deskuentuak aparkamientuan e jarriko balitu. Hurrenguan kontu gehio.

estalapetik



Joxe Luis

## Oporrak, oporrak, oporrak

Gorka Ormazuri



Aurreko irailean hasi ginen jada aurtengoetan pentsatzen, urte osoa opor luzean arteko denbora galdua balitz bezala. Ezin pasa bidaia agentzien ondotik bertako eskaintzak eta tarifak begiratu gabe

Baina... badatoz! Hemen dira! Zenbat denbora, indar eta, batez ere, diru xahutzen ote dugu urtero datozen oporrak antolatzen; zenbat buruhauste nora joan erabakitzen; zenbat eztabaida ingurukoekin adosten. Baina oporrak oporrak dira eta esfortzu guztiak ere gustura egiten dira lanik edo eskolarik gabeko garai horri ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko aldera.

Oporrak...

Dena den, oporrak hurbildu ahala bada galdera bat etengabean errepikatzen dena eta ni neu gero eta gehiago aztoratzen nauena: nora zoaz(te) aurtin? Bai, hala da, oporrak nonbaitera joatearekin lotzen dira eta ez doana ez dago guztiz oporretan edo, bestela interpretatuz, ezin duelako dago inora joan gabe. Egonean oporrak ez ote dira bada opor? Bidaia ote da oporraren izana? Nondik dator atsedena bidaiarekin lotze hori? Nork eta zergatik sortu digu behar hori?

Hilargi, seguru nagok kontu hauetan aditu handia izango haizela eta emaidan erantzunen bat hau dena hobe ulertzeko. Obrigado!

## Etxera oporretan

Hilargi Linazisoro



Bakoitzak aukeratzen duena edo aukeran duena egiteko denbora luzea (nahi baino laburragoa askotan). Oporrak horrela definitzerik izango genukeela uste dut. Urte guztian zeregin eta lanez lepo ibili ondoren deskantsu denbora iristen da. Eta

zereginik gabeko denbora hori betetzeko beharra sortzen zaigu, plan, bidai eta bestelakorik gabe denbora alferrik galdu dela ematen baitu. Horrela, batzuek bidaiatzea aukeratzen dute; leku eta kultura berriak ezagutzeko batzuek, kirol pixkatekin disfrutatzeko beste batzuk, tripaz gora eguzkiari begira besteek eta ez gutxi parranda ederrak botatzeko "La canción del verano"-ren erritmorra. Pertsona desberdinek aukera ezberdinak egiten ditugu eta aukera faltarik ez dago, beti ere diru pixkat (edo puskat) gastatzeko gozoz bagoade.

Baina etxean denbora libreaz gozatzen geratzea ere aukera bat izan liteke eta besteak bezain on eta atsegina izan ere. Zenbat gauza ote ditugu urte guztian zehar denbora faltagatik egin gabe utzi ditugunak? Ez al da garai ona lasai-lasai gauza horiek egiteko?

Nik neuk azken denboraldian oporrak etxera itzultzearekin lotzen ditut. Lagun eta familiakoekin denbora pasatzearekin, Euskal Herriaz gozatzearekin eta lasai-lasai etxean egotearekin.

Eta galdera bat bururatzen zait. Ez al da oporrak bidaiatzearekin lotu behar hori sortuko, gure herrian, gure denbora libreaz gozatzen ez dakigulako? Zer iruditzen Karmelo?

## Minibizitza berriak

Karmelo Arroiabe



Oporretan bidaiatze behar hori, gudan sortu baino gehiago, sorrarazten digutela iruditzen zaidan; eta ez nolahi ere gainera. Gaur egunean opor garaian herritik kanpora joaten ez denak, bazirudik oporrik ez duela. Zenbat eta urrutirago joan orduan eta opor hobeak. Gozamina eta paradisua oso urrun kokatzen dizkigute beti, ia heldu ezinezko lekuetan. Kilometroek oporrekin zer ikusi zuzena dutelakoan.

Eta askotan esaera zaharrak dioen bezala: "urritiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta ...lau".

Nik uste dinat, oporren faktore edo alde garrantzitsuena "aldaketa"-rena dela, desberdintasunarena alegia.

Egunerokotasunetik ahalik eta gehien urruntzea. Ez da nahikoa lanik ez egitea, urtean zehar igarotzen dugun une errepikatzailerik eta monotonoak denbora batez baztertzea edo zokoratzea baizik. Zentzu honetan, jubilatuek ere oporraldiak beharko

lituzkete.

Minibizitza berri honetarako ez da ezinbestekoa kanpora bidaiatzea, bertan ere aurrera eramanez dezakegu egunerokoaren desberdintasunak bilatzen saiatzen bagara. Bidaia handi eta luze askoren momentu zoriontsuenak haien prestaketan ematen dira, zeren igarotzen ari direnean beste kolore bat hartzen dute. Ilusioaren desilusioarena.

# Patagoniarako laguntza bila

Patagoniako lurraldea krisian dago eta horren ondorioz, orain dela bi urte eta erdi Iñaki eta Silvia Zumaiara etorri ziren. Euren helburua, krisitik ihes egitea eta nola edo hala, hemendik Patagoniara laguntza bidaltzea.



## MAITANE URBIETA

**O**rain dela bi urte eta erdi iritsi ziren Iñaki eta Silvia geure artera. Ordura arte Patagonian (Argentina) bizitzen egon dira, baina bertako krisia dela eta, handik alde egitea erabaki zuten.

17 urteko alaba dute eta hori izan da, neurri handi batean, Patagoniatik alde egiteko arrazoietakoa bat. Izan ere, bertan geratuz gero, ezingo zioten hezkuntza maila duin bat eskaini, ezta bizitza duin bat ere.

Hala eta guztiz ere, ez dute euren lurraldea ahazten. Ezta gutxiagorik ere. Patagonian dagoen fundazio batean sartuta daude, "Fundación Pibes de la Patagonia", hain zuzen. Fundazio honek pobrezian dauden gazteei, gurasorik ez dutenei, alkohol eta droga arazoak dituztenei... laguntzea du helburu. Horrela, inguruko jendearengan fidatzen erakusten diete eta bide batez etxea, famili giroa, eskola eta ikasketak eskaintzen dizkiete. Valdocco izena eman diote proiektu honi. Eurentzako Valdocco honako hau da: jendea jasotzen duen etxea, bizitzari aurre egiteko prestatzen zaituen eskola eta lagunekin egon eta ondo pasatzeko jolastokia.

Hau guztia, ordea, ez da nahikoa bertako gazteei aurrera ateratzen laguntzeko. Horregatik egon gara Silvia eta Iñakirekin. Bertako egoeraren berri eman digute eta proiektu asko omen dituzte pentsaturik. Proiektu horiek aurrera eramateko, ordea, diru asko behar da eta Patagonian ez da horrelakorik.

Patagoniako gazteei laguntzeko bidean lehen pausoa eman dute jada. Izan ere, etxerik ez zuten gazteek dagoneko badute etxe bat. Eskolarik ezagutzen ez zuten gazteek, gaur egun, badute eskola bat. Baina horiek, esan bezala, bidearen lehen urratsak dira. Orain bigarren urratsak eman nahi dituzte eta pentsaturik dituzten proiektuak aurrera eraman. Proiektu horien artean honako hauek daude: basetxe bat eraiki, besteak beste untxiak eta oilaskoak hazteko; laborantza eremu bat sortu; berdegune bat sortu; eremu kulturala, ingurumen eremu eta eremu turistikoa bat sortu; artisau tailerren gune bat eraiki; eskolarako materiala berritu: ordenagailuak, liburutegiak...; Valdocco koordinatzaileen prestakuntzarako bekak, informatika gela... lortu.

Hori guztia aurrera eramateko izugarritzko dirutza

behar dute. Kontua da, eurentzat han, Patagonian, izugarrizko dirutza dena, hemen guretzat ez dela hainbestearinokoa. Iñakik dioen moduan: "hemengo 1.000 euroekin Valdoccoko etxean bizi diren 32 gazteek hilabete baterako janaria izango lukete".

Iñaki eta Silviaren lana, beraz, hori da: hemendik ahalik eta diru-laguntza handiena lortu Patagoniara bidaltzeko. Sanpedroetan hasi ziren lan horretan eta jendearen harrera ona izan zela diote. Banaketa-bono batzuen bidez saiatzten hari dira dirua lortzen. 3 euro balio dute bonoek eta hemendik aurrera zenbait tabernatan erosteko aukera izango dugu. Bonoa erosiz gero, kamera digital bat ira-

bazteko aukera izango da abuztuaren 28an egingo den zozketa baten bidez.

Banaketa-bono hauei esker, 1000 euro inguru biltzeko aukera ikusten dute Iñaki eta Silviak, baina badakite hori ez dela nahikoa izango. Horregatik, irailetik aurrera, behin uda amaitu dela, Zumaia eta inguruko herriko enpresetan diru laguntzak eskatzen hasi behar dira. Enpresek emandako laguntza horien bitartez, lehen aipaturiko proiektuak finantzatu nahi dituzte.

Beraz, neurri batean behintzat, geure esku dago Patagoniako gazteen etorkizuna. Eta ez dezagun ahaztu, hemen guretzat gutxi dena han, eurentzat ikaragarri dela.

Iñaki eta Silviarekin hitz egiten:

## "Dagoeneko ohitu dira guri hemen ikusten"

### Nola iritsi ziren bi patagoniar Zumaiaara?

Patuaren kontua izan da. Iñakik familia dauka Gipuzkoan eta lehen zuen lanaren bidez ia Euskal Herri osoa ezagutzeko aukera izan zuen. Zumaia eta Oñati izan ziren gehien gustatu zitzaizkigun herriak eta, azkenik, Zumaian geratzea erabaki genuen.

### Nolako harrera izan duzue herrian?

Ona. Jendearekin ondo moldatzen gara. Hasieran aurpegi arraroekin begiratzen ziguten, baina dagoeneko ohitu dira guri hemen ikusten.

### Zuei laguntzeko prest ikusten dituzue zumaiarrak?

Bai. Sanpedroetan hasi ginen bonoak saltzen eta oso ondo joan zitzaigun. Jendeak asko laguntzen du.

### Noiz arte egongo zarete geure artean?

Ufff! Jaungoikoak esango du. Sekula ez genuen pentsatu hona iritsiko ginenik eta hemen gaude. Gainera, gure alabak ez du hemendik joan nahi.



Valdoccorekin harremanetan jartzeko edo informazio gehiago lortzeko:

Telefonoa: 0054 297 4499000 barrukoa 34444

Posta elektronikoa: valdocco@hotmail.com

jcmpatagonia@hotmail.com



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE. z/g  
TEL: 943 885369

**KAIA**  
Kafetegia

# Mozorroen eta saildutegien artean Iñaki Olazabalekin elkarrizketan

**Uztaileko jai goiza da. Eguraldia ez da ez ona eta ez txarra, horregatik kafetegia lasai dago eta elkarrizketa hasi baino lehen garrantzirik gabeko gauzei buruz hitz egiten ari gara. Hasteko prest gaudenean, galderak etxean ahaztu zaizkidala konturatu naiz eta lotsa ezkutatu ezinik etxerako bidea hartu dut. Eskerrak hurre bizi naizen!**

ISMAEL MANTEROLA

Iñakik eskulturetako erabiltzen duen materiala ez da gehiegitan azaltzen artearen historian; hala ere, plastikoak tokia kendu arte, zinkak presentzia handia zuen egunero-ko bizitzan, garbitzeko ontzietan eta teilatuetako estalkietan, adibidez. Hain zuzen, teilatuetako erabilpen horrek eman omen zion Iñakiri eskulturetan frogatzeko inspirazioa: "Alemanian ikasten ari nintzela, Paris zen egin beharreko geldiduna. Bertan, teilatuei begira geratzen nintzen, [Parisko teilatuek arreta pizteko modukoak dira] eta euri-tik babesteko zinka erabiltzen bazuten iraunkorra zela pentsatu nuen eta horrela nire eskulturetan material horrekin lanean hasteko gogoia sartu zitzaidan. Hori 1990. urtean gertatu zen eta orain arte". "Gainera", jarraitzen du Iñakik, "praktikoa da, beste materialekin azpiegitura berezia behar da, eta honekin ez. Burdina edo altzairuarekin landu daitezkeen formak, zinkarekin berdin-berdin lor daitezke, baina askoz ere arinagoak dira, erraz mugitu daitezke eta erraz eraiki".

Bestalde, arrazoi praktikoetatik kanpo, Iñakiren ustez zinkak aldeko beste bi gauza ditu: bata, "pisuaren itxura eta benetako arintasunaren arteko joko", materialaren arintasunak forma eraginkorrek emateko gaitasuna du eta horrek ikuslearen lehendabiziko hausnarketa bultzatzen dezake; bestea, beste metalen aurrean daukan aldeko gauza, kolorearen erabilpena da: "Zinkaren emaitzak ikusita, kolorea sartzeko gogoia sartu zitzaidan, xaflak pintatu edo zerbaiten bidez metala urratzeko aukera bilatu nuen, batez ere azidoekin lortzen den patina edo gaineko geruza berezia".




"Azken hau ia kasualitatez aurkitu nuen lan prozesuan. Zinkeko xaflak eztaizterako orduan arrastoak geratzen dira eta marka horiek kentzeko azidoak bota behar dira. Azidoek zinkean eragiten zituen efektuak gus-tatu eta eskulturen gainazal guztian frogatzen hasi nintzen. Formak emanda daudenean azidoekin pintura efektuak egiten ditut, zuria eta beltzaren arteko grisera eta urdinera jotzen duten koloreak lortu arte, baina inoiz muturrera jo gabe, hau da, zeharo beltza edo zuria laga gabe. Beti gustatu izan zait pintura eta eskultura elkartzea, bi espresio bideak bateratzeko aukera bilatzea. Uste dut zinkak aukera ematen didala".

Materiala eta lan egiteko modua estu-estu lotuta daudela garbi ikusi dugu Iñakiren zinkari buruzko mintzaldian, baina lan egiteko moduan sakontzeko eskatu diogu: "Hasieran formak paperean marrazten ditut; horietatik batzuk



aukeratzen ditut eta bi edo hiru pieza batera egiten hasten naiz. Lan prozesuan marrazkietako gauzak alda daitezke edo beste eskultura batean sartu. Nahiz eta pieza batean lanean jardun, burua beste batean izan dezaket eta inpulsoen batek bultzatuta egiten ari naizena laga eta beste



eskultura bat zuzentzera joan naiteke. Burua gauza askotan eduki dezaket, nahiz eta eskuak eskultura batean izan. Sarritan eskultura multzo edo serietan lan egiten dut".

Formei eta "esku lanari" buruz hitz egiten jardun dugu orain arte, baina arteak esanahiak ere baditu, nola transmiti dezake forma batek esanahia? Edo, oinarritik hastearren, zure formak zerbait transmititzeko asmoa al dute? "Bai, ikusleari zentzuren bat transmititu behar zaio, hausnarketara bultzatu. Formek zerbait sujeritzea gustatuko litzaidake, formalismo hutsa ez zait interesatzen. Sarritan, nire eskulturek leiho txikiak izaten dituzte eta ikusleak barrua ikusten du, horrekin nire eskulturek kanpo eta barruaren artean duen harremana lortzen dut eta gizaki guztiok dugun harreman bera islatzea nahiko nuke".

"Nire eskulturak jendeari zuzenduta daude. Oinarrizko gaietara buruz hitz egiten dute, edozein tokitan eta unetan azaltzen diren gai unibertsalak"

"Pertsonak kanpoko itxura eta barruan gordetzen duenaren arteko tentsioa edo harremana izaten dute, hori da nire eskulturetan azaleratu nahi dudana. Adibidez, Mozorroak izeneko seriean, maskararen gaia aztertzen dut, kultura eta garai guztietan azaldu den gaia. Burua edo aurpegia estaltzeak barrua defendatzeko aukera ematen du edo agian aldatzeko, beste zerbait izateko gogoia. Mozorroa intimitatearen defentsa izan daiteke, kanpoaren eta barruaren arteko azala edo muga. Hala ere, gehien intere-

**ad**

**AUTOS  
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

*Kresala*  
Taberna

Julio Beobide 3, tfn. 943 019 869

**ALTZARIAK  
OSTOLAZA  
AROEZTEGIA**



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



satzen zaidana artearen anbiguetatea edo interpretazio irekitasuna da, norberak eskultura horietan ikus dezakeena zilegi da".

"Adibidez, metalezko sarea erabiltzen dudana eskulturretan jende askok kartzela ikusten du, beste norbaitek konfesionarioa; nire asmoa ez zen ez bat eta ez bestea, agian guztiak. Artistak ikuslearen hausnarke-tarako izango diren formak sortzen ditu".

Hain zuzen, abuztuaren 3tik 14ra Oxfordeko aretoan mozorroak eta saindutegiak izeneko serieak erakutsiko dituzu: "Bai mozorroak eta saindutegiak antzeko esanahia dute. Saindutegiak mozorroak irudikatzen duten gerlariarentzat egindako atsedeen lekuak dira. Egunerako bizitzan gure barnean dugun borroka sinbolizatzen dute gerlari-mozorroak, eta bizitza arruntean bezalaxe, atsedeen hartzeko unean behar ditugu. Tentsioak alde batera laga eta lasaitzeko edo deskargatzeko tokiak".

"Erakutsiko dudana saindutegi batek ez du metalezko saretxorik. Gerlariarentzat saindutegia denez, ez du behar. Ikuslearentzat egin ditudanak aldiz, bai. Sareek eskulturaren zuloa estaltzen dute eta ikusleak barrura begiratzeko kanpoan zerbait laga behar duela esan nahi du: materialtasuna kanpoan laga eta barruko ezerezaren izpiritualtasunera iristeko bidea. Baina ez da erlijioaren espiritualtasuna, nire saindutegiak profanoak izan daitezke".

Azken honen gaineko nire zalantza materialistak esan ondoren, eguzkiak laino tartetik lau edo bost aldiz irten

duela konturatzen naiz eta bukatzeko ordua dugu. Azken urtean bi arte galeriatan eta kultur etxe batean erakutsi duzu, berdina al da toki batean zein bestean erakustea? "Ez, nik bi bideak uztartzen ditut. Galerietan erakusten duzunean saltzeko eta kanpora irteteko aukeran gehiago pentsatzen duzu. Kultur etxeetan, berriz, jendeari zure lana erakusteko aukera aske xamarra daukazu, ez duzu saltzeko horrenbeste kezkarik eta erakusteko asmoak beste gaintzen duela uste dut. Kultur etxetako erakusketetan jendeari konektatzeko helburua dago".

Horrekin lotuta egongo da orduan Zumaian egin nahi duzuna ezta? "Bai iparraldean eta Ordizian esperientzia polita izan zen eta Zumaian errepikatu nahi izan dut. Erakusketak irauten duen bitartean, jendeari aurrean eskultura bat egingo dut. Jendeak ez du lan prozesua ezagutzen eta askotan artistaren lana ia magikoa dela dirudi. Mito hori pixka bat baztertzeko pentsatuta dago esperientzia hori, jendeak jakin dezan artea egitea ez dela horren zaila eta zuzenean ikus dezan". "Gainera, eskultura Udalak erosiko du eta Forondan kokatuko da, jende guztiak ikusteko aukera izan dezan".

Eskulturari lotuta dauden gauza ugari buruz hitz egin dugu, eskultura publikoa, salerosketa, hurrengo

urteko asmoak. Iñakik lanean segitzeko gogoia du eta ez da geldirik egoteko modukoa, horregatik eskulturetan aldaketak sartzeko frogak egiten ari dela esan digu eta egiten duena erakusteko bideak aztertzen jarraituko duela esanez bukatu dugu jaiko goiz ez ohiko hau.

"Nire eskulturak jendeari zuzenduta daude. Oinarriko gai buruz hitz egiten dute"



## LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
- Luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

## Zumaiako uda musikalak 20 urte

Hiru irakasle eta sei ikasle. Hitz gutxitan esanda, honela hasi zen Zumaiako Nazioarteko Musika Jaialdia. Hogei urte hauetako ibilbidean pertsonen aurpegiak aldatu badira ere, jatorrizko espiritua oraindik bizirik dago. Abuztuaren 1etik 15era izango da aurtengo Zumaiako Uda Musikala. Ezagutu nahi badugu, Mertxeren hitzak argiak dira: *"Etorri eta ikusi. Bizi beharra dago ondo ulertzeko"*.

ITZIAR GARATE

**M**usika Eskolako hiru irakasle eta ikasle gutxi batzuk izan ziren Zumaiako Nazioarteko Musika Jaialdiaren gurasoak. Haietako bat Mertxe Argintxona izan zen, orain jaialdiaren arduradun nagusia dena. Azaldu digu kirolaren munduko ospakizun baterako ikasleak hautatu zituztela. Eta hartatik sortu zela ikastaro batzuk antolatzeko ideia.

Hasierako ikastaroetan pianoa izan zen musika tresna bakarra. Ondoren sortu ziren kontzertuak emateko eta kanpoko jendea hurbiltzeko aukerak. Arrakastak, eta horrekin batera irakasle eta ikasleen kopuruak, gora egin zuten, baita instrumentuen kopuruak ere. Biolina, biola, txeloa eta pianoaren laukotea prestatu zen probatzeko.



Aitor Bayo

"Musika Banda ere Patronatuan sartzten hasi zen eta hori aprobetxatuz guztia elkartu genuen", adierazi digu Mertxek. Bide honetan joan ziren agertzen lehiaketak, musika laborategiak eta kafe musikalak. Laukotea zabaltzeko, klarineta eta oboea ere sartu ziren. Geroago, fagota etorri zen. "Instrumentu hauek batzeko gure iritzia argia izan zen: kalean kontzertuak egiteko aukera itxia geratzen zen lau instrumenturekin. Laborategiekin jarraitu eta lehiaketak planteatzeko ikastaroak gehiago zabaldu behar genuela konturatu ginen".



Aitor Bayo

Euskadiko Gazteen Orkestra (EGO) jaio zen, musika eskolen mugimendua bizitu zen, kontserbatorioak indartu ziren... eta noski, honek Euskal Herriko musika mugimenduetan eragina izan zuen. "Orduan joan ginen ikusten gure jaialdia Euskadi mailan sartzen zela".

Hala ere, urteetan helburu bati eutsi diote tinko: jaialdiak euskaldunekin has-tea. Eta hor izan ditugu, adibidez, Mikel Laboa, Xabier Lete, Ainhoa Arteta edo Oskorri, horren lekuko.

Pixkanaka arrakasta eta izena hartzen eta lortzen joan den Jaialdia da. Hala ere, bultzada handiena 1997. urtean izan zuen. Orduan hartu zuen Musika Patronatuak Jaialdia antolatzeako ardura. "Jaialdia berdina da, erabilpena da ezberdina", azaldu digu Mertxek. "Hasieratik argi eta garbi utzi genuen musika kalera eraman behar zela, jendearengana hurbildu".

## Hasierako ikastaroetan pianoa izan zen musika tresna bakarra

Herriaren artean (Patronatuaren aurretik antolamenduan izan zen CAM erakundearen bilbotar eta italiarrek osatutako taldea izan zen) baina, egindako publizitateak (ahoz ahokoa, gehienbat) eta Internet bezalako bitartekariaren erabilpenak Jaialdiaren mugak zabaldu ditu.

Urte hauetan euskaldunen kopuruak gora egin duela esan digu Mertxek eta "hori oso pozgarria" dela. Hasieran bost ikasle izan ziren; orain, berriz, ikasle euskaldunen kopurua %30era iritsi da.

Ikastaroak daude bi aste hauen oinarrian. Bi motatakoak: haize eta soka instrumentuen ikastaroak. Batzuk Forondan eta besteak Ubillos Jauregian. Horietan, ikasle bakoitzak bere instrumentuari dagozkion klaseak hartzeaz gain, ganbera musikari ere eskaintzen dio bere denbora. Horren arabera, hainbat talde sortzen dira. Urtero berriak, ikasleek ez bait dute gehienetan elkar ezagutzen. "Partiturak eta pieza batzuk prestatzen dituzte eta horiek dira kalera eramaten ditugunak musika egiteko".

Ikasleak etortzen direnean, entzunaldi moduko bat egiten zaie, froga txiki bat amaierako kontzertua antolatzeako. Aukeratzen direnak bi egun gehiago geratzen dira, parrokiaren egiten den kontzertuan parte hartzeko. Horretarako, bi egun horietan entseguak egiten dituzte, entsegu partzialak. Zuzendaria datorrenean entsegu orokorra egiten da eta bigarren egunaren amaieran kontzertua.

Lehenengo urteetan harreman handia egon zen Italia eta Euskal

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maite**  
ileapaindegia

**Malaur**

ert  
informatika

tresna digital  
internet  
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95

DALAC  
COMPUTER

Baina ez du soilik euskaldunen kopuruak egin gora. Madril, Burgos, Valentziatik datozen ikasleez gain, orain arte inoiz parte hartu ez duten beste probintzietatik etortzeko eskakizunak ere egin dituzte aurten. "Kanariar Uharteak, Guadalajara, Gaztela eta Leon, baita urrunago dauden lurraldeetatik ere, Txekoslovakia eta Alemaniatik, esaterako. Aurten karabana eta guzti datorren ikasle bat ere etor daiteke". Izena eta izana zabaltzen jarraitzen, beraz.

"Ez pentsa guztia ona izan denik", argitu digu Mertxek. "Hogei

urteotan denetatik izan dugu. Orain urte batzuk, Joxe Mari Korta hil zutenean, arazo dezente izan ziren, adibidez. Ikasle batzuek alde egin nahi izan zuten, guraso batzuk seme-alaben bila etorri, ikasleetako bi guardia zibilen alabak ziren, hiru kontzertu suspenditu ziren...". Baina "arazo horiek guztiek nortasuna eman digute".

Esan bezala, hogei urte hauetan denetarik egiteko denbora izan dute. "Erizain, mediku, lagun... izan gara. Eta izateko prest gaude. Horrek guztiak ikasteko balio izan digu".

## Internet bezalako bitartekarien erabilpenak Jaialdiaren mugak zabaldu ditu.



Aitor Bayo

  
gofi  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School  
**Harvest**

**Ingelesko klaseak adin guztietan**

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

mertxe argintxona musika jaialdiko zuzendaria

## "Parte hartzen duenak ere badauka zer esan. Hori da gure jaialdia".

**Hogei urte hauetan mota askotako bizipenak izango zenituen. Zein da jaialdiak eman dizun unerik onena?**

Arrakasta handiena Luar Na Lubreren kontzertua, dudarik gabe. Hasieran kritikak entzun genituen (hondartzan lekua kentzen ari ginela eta abar), baina gauean ikusi genuenak merezi izan zuen. Magikoa izan zen. Jaialdiak duen xarma hori agerian geratu zen. 1.500 aulki jarri genituen eta 3.500 pertsona izan ziren bertan. Gauean eklipsea izango zela eta hasieran beldurra ere bagenuen, badakizu mareak mugitzen dira eta prestatu genuen eskenatokiari ura sartzen bazitzaion azpitik guztia mugi zezakeen. Han geratu ginen lotan, ikasle eta irakasleak. Ertzainek ere tarte-ka egiten zuten bueltarik. Kontzertua amaitu ondoren etorri zen okerreana. Dena jaso behar izan genuen hurrengo goizeko hamarrek baino lehen. Gogorra izan zen, baina merezi izan zuen.

**Eta unerik gogorrena?**

Pablo Milanesen kontzertua, hori ere dudarik gabe. Bere-ekin kontaktuan jarri nintzen, pertsonalki berarekin hitz egin eta kontaktuak hasi ziren. Nik Udalarri proposatu nion kontzertua- ren aukera. Hasieratik denen adostasuna eskatu nuen. Arriskua handia zen eta denen adostasuna beharrez-koa ikusten nuen. Bakar batek ezetz esaten bazuen, atzera egingo nuela esan nuen, baina talde politiko guz- tiak ados azaldu ziren eta aurrera egin genuen... baina zumaiarrak ez ziren azaldu. Uste dut Zumaiako herriaren hutsegite han- dia izan zela. Kanpoko jende ugari etorri zen, 2.000 lagun inguru baina guk 3.000 edo 4.000 etorriko zirela aurreiku- si genuen. Gaizki atera zen gauza. Baina hortik ere ikasi dugu zerbait. Hala ere, Pablok zerbait pozgarria esan zidan: Zumaiako Nazioarteko Jaialdia ezagutzen zuen. Entzuna zion lagun bati hitz egiten eta ezagutzen zuela esan zidan.

**Zein da Zumaiako Jaialdiaren berezitasuna, beste jaial- diekin konparatuta? Nondik datorkio xarma hori?**



Lehenengo egunean hortaz egon nintzen hitz egiten beste jaialdi bateko antolatzaile batekin. Bertako arduradunak ikusten zuen arazo guztiak diruarekin konpontzen zirela eta harrituta geratu zen gurearekin. Esaten zidan han ikas- taroa amaitzen denean bakoitza bere logelara doala. Ongi prestaturiko gelak, liburutegi onak, jaialdi handiak... baina zerbait falta dela. Hemen gauzak hurbilagokoak egiten saiatzen gara. Klaseak amaitu ondoren instrumentuak utzi eta zerbait afaltzen dugu elkarrekin. Gero kontzertuak ikustera joaten gara edo bueltatxo bat ematen dugu guz- tiok. Nortasun berezia ematen dio honek. Giro berezia

sortzen du honek. Badaude ikasleak orain hamabost urte hasi zirela etor- tzen; gaur egun irakasleak dira, baina hona etorzen jarraitzen dute... zerbait dago hemen. Gauza batzuetan Zumaia herri berezia da. Besteek ez dute jaial- dia kalera eramaten. Hori da beste gakoetako bat, jaialdia jendeari hurbil- tzea. Ez bakarrik antolatzen duenak, parte hartzen duenak ere badauka zer

esan. Hori da gure jaialdia.

**Zer gehiago behar du jaialdiak aurrera egiteko?**

Lan talde on eta sendo bat. Lana ongi egiteko xehetasun txikiena ere izan behar da kontuan eta, esan bezala, gure lan taldea murrizta da. Uste dut talde egoki batekin gure jaialdiak izugarri ondo funtzionatuko lukeela.

**Nola antolatzen duzue guztia?**

Uztailaren 31n denok Musika Eskolan elkartzen gara eta ongi etorria ematen diegu parte hartuko dutenei. Guztiek



Aitor Bayo

logelak eta egitarauak prest izaten dituzte. Hona etortzen direnean bakoitzak bere karpeta izaten du prestatua. Bertan ordu-tegiak, klaseak izango diren lekuak, ostatu hartuko duten etxeak, herriko tabernen menuak, inguruko museo eta erakusketak, hegaldiak... izaten dituzten zehazturik.

### Nola bizi izaten duzu zuk garai hau?

Bete-betea. Ikusi bestela gaurko goiza (5 telefono dei 50 minututan). Pentsa ekipoa motza dela. Denok egiten dugu

dena, baketak jartzetik hasi, eskenatokia garbitu edo loreak prestatzeraino. Irakasle eta ikasleek dituzten beharrei erantzuna emateko prest gaude beti. 12 egun gainezka eginda izaten dira eta bukaeran pentsa nola egon gaitezkeen. Baina esan beharra dago, baita ere, esperientziak nortasuna ematen duela eta asko laguntzen duela.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiet hogeitau urte hauetan etxeetan ikasleak hartu dituzten familiei. Batzuk urtero egin dute ahalegina eta benetan eskertzekoa da. Gelak txukundu eta prestatzen dituzte eta ezezagunak diren bi pertsona etxean sartzen dituzte. Eskerrak emateko eta asko baloratzeko moduko lana da. Konfiantza hori eskertu nahi dugu.

### Eta herriak baloratzen al du lan guzti hau?

Ez. Baloratu, baloratzen dute, baina... Hasieran denak kontzertu denetara joaten ziren. Ez zen selekzioerik egiten. Orain ohiturak aldatu dira eta jendeak gehiago hautatzen ditu, baina hurbiltzea baino errazagoa egiten da kritikatzeko. Benetan hau ezagutu eta baloratzeko egin behar dutena guregana hurbiltzea da. Uste dut honela hobeto baloratu ahalko dutela.

### Herria aditua al da musika kontuetan?

Benoa. Gustatu behintzat egiten zaio. Urtero egiten dugun lehiaketak bi sari ditu: irakasleena eta publikoarena. Deigarria da irakasleen iritzia eta publikoarena oso antzekoak izaten direla. Normalean bat etortzen dira eta horrek harridura sortzen digu, baina polita da horrelakoak ikustea. Pentsatu behar dugu botoa ez dutela ematen ezagunak direlako edo. Entzun dutenaren arabera ematen dute botoa eta emaitza horiek ikustea polita da.

### Hogei urte hauen ondoren jarraitzeko asmorik ba al duzu?

Ez dakit zer geratuko den. Benetan. 20 urte ondoren ni oso nekatuta nago eta ez dakit. Dakidana da 21 urte egiten badituzte 25 egiten amaituko dudala eta... ez dakit. Ez dut etapa bat itxi nahi, baina nire helmuga 20 urte egitea zen. Ikusiko dugu.



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

### AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA

**Aurten ikasle gazte samarrak izango dituzuela entzun dugu. Hala al da?**

Bai. Hamalau, hamabost eta hamasei urteko ikasleak izango ditugu gure artean. Benetan pozgarria da. Antolakuntza aldetik berri ona dela esango nuke, seinale ona dela. Guraso batek ez lioke, bestela, hain erraz etortzen utziko. Konturatzen dira beraiek ikustera etorri eta seme-alabak hemen utz ditzaketela, eta hori, beti ere, pozgarria da. Eta hemen dik urte batzuetara ere, beharbada goi mailako orkestraren batean daudenean, gure herria eta gure jaialdia gogoratuko dituzte. Hori ere pozgarria da.

**Egitaraua dagoeneko erabakita duzue. Zein ekitaldi izango ditugu aurten?**

Garrantzi handia eman zaie kontzertuei. Hasierako ekitaldia Pirineos Jazz Orchestra-ren eskutik izango dugu. Euskal Herriko, Akitaniako eta estatu mailako musikariek osaturiko taldea da. Hemengo abesti eta euskal kutsua duen musikarekin emango zaio hasiera aurtengo jaialdiari. Gainera, aurten aspaldian egin ez den beste kontzertu bat izango dugu: San Pedro Abesbatza, Beheko Plazako Jubilatuen Korua, Zumaiako Banda eta Txistularien Banda elkartuko dira eta Beheko Plazan kontzertua eskainiko dute. Aspaldian ez dugu honelakorik izan; beraz, ilusio handiarekin prestatu den zerbait izango da. Hamabost egunetan hainbat ekitaldi izango dira: lehiaketak, kontzertuak, kafe musikalak... Organo Kontzertua ere egongo da Esteban Elizondoren eskutik. Kontserbatorioko Katedraduna da eta bere piezak zumaiar musikariek egindakoak izango dira, baita beste zenbait egile euskaldunenak ere. Aurten ere saiatzen ari gara Mari Kalean zinema emanaldia prestatzen. Iruditzen zait oso polita izan daitekeela. Amaiera handia eman nahi diogu aurtengo Nazioarteko Jaialdiari eta horretarako Golde Apple Quartet taldea aukeratu dugu.

**Zumaia 2004 Nazioarteko  
Musika Jaialdia  
1/8/2004 - 15/8/2004  
20. urteurrena**

Igandea, abuztuak 1 - Maria eta Jose Antzokia - 22:00  
PIRINEOS JAZZ ORCHESTRA

Asteartea, abuztuak 3 - Beheko Plaza - 22:00  
ZUMAIARRAK

Osteguna, abuztuak 5 - Mari Kalea 19:30  
DANBOLIN ZAR

Osteguna, abuztuak 5 - San Pedro Eliza- 22:00  
IRAKASLEEN KONTZERTUA

Ostirala, abuztuak 6 - Maria eta Jose Antzokia  
ORKESTRA BAKARLARI TXAPELKETA

Larunbata, abuztuak 7 - San Pedro Eliza - 22:00  
GANBERA MUSIKAREN LABORATEGIA

Igandea, abuztuak 8 - Mari Kalea:- 22:00  
METROPOLIS pelikula zuzeneko musikarekin

Astelehena, abuztuak 9 - Mari Kalea - 19:00 H.  
GANBERA MUSIKAREN LABORATEGIA

Astelehena, abuztuak 9 - San Pedro Eliza - 22:00 H.  
ORGANO. KONTZERTU HITZALDIA

Asteazkena, abuztuak 11 - Maria eta Jose Antzokia - 22:00 H.  
GANBERA MUSIKAREN LEHIAKETA

Ostirala, abuztuak 13 - San Pedro Eliza - 22:00 H.  
JAIALDIKO ORKESTRA

Igandea, abuztuak 15 - Beheko Plaza - 22:00 H.  
GOLDEN APPLE QUARTET



Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak  
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



# Udan ere lan egin behar, hau da gizakiaren paraderea!



la. Galdera da: norbaitek gogor-tzen al du Itzurunek zer itxura zuen obrak egin aurretik?

Hirigintza gaiek garrantzia zuten orain 10 urte. Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko asmoa zuen Udalak Alai auzategi inguru-ruan, eta proiektua, dirudienez, ez zen zumaia-ru guztien gogokoa. Garai hartan zinegotzia zen Migel Aperribai-ren ustez, "proiektua partxe huts bat" zen. Prezioak ere ez ziren denen gustukoak. Bilera batera joan zen entzule batek honela zioen: "Zer gertatzen da emaztea eta bi ume dituen langile arrunt batekin? Nola ordaindu horrelako dirutza bat? Diskriminatua sentitzen naiz!". Ba, garai hartan etxeak garesti bazeuden, pentsatu orain nola dau-den...

Euskara munduan ere baziren auziak. 1994ko uda hartan nahiko arazo baziren AEK eta Udalaren artean. "AEKren proposamena kontuan izan gabe udal euskaltegia martxan jarri nahi da, elkarlana bultzatu beharrean lehia giroa ezarriz". Hala zioten AEK-ko kideek Udala euskaltegi berria irekitzeko asmotan zebilenean.

Bertil Lagerström suediarra elkarriketatu genuen zenbaki honetan. 1982an Zumaian lehen aldiz izan genuen artistak zioen Euskal Herrian bizi zen mobida miresten zuela, nahiz eta, noizean behin, guardiazibilekin tupust egin.

Baziren, noski, beste hainbat gai, hala nola, Ludoteka, Gazte Batzordearen abenturak, Zumaia eta Algorri arteko ibilbidea, antimilitarismoa, eiakulazioa, eta urteroko kon-tua: nahi al dugu zumaia-ru azkoitiar, azpeitiar edo eibartarrak udaran Zumaia-ru etortzea? Erantzun onena- ren jabearentzat 1994ko trajebaño bat.

Atzera begirada eginaz, 10 urte gazteago ginen egun haie-tan ere, abuztuan zenbakia atera genuela ohartzen gara. Nori okurrituko eta guri. Hasieratik izan gara eta nabar-menak.

1994ko abuztuko gai nagusia Itzurungo hondartzan egindako eraldaketa izan zen. "Metamorfosia" hitza era-biltzen zen aldaketa hartaz idazteko orduan. Batzuentzat itsusia (zaldi antzeko eskultura, behintzat), besteentzat "modernua". Kontua da, urteak pasa hala, ohitu egin gare-

**Tapaia**  
Zumaia

Erribero Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**SAIOM**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3      943 860151

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97



# zumaya online

INAZIO TOLOSA



Halaxe, aspaldiko "y" grekoaz baliatuta sartu naiz interneteko sarean, ea zer agertzen zaidan ikustera; beno... egia esan, Manuel de Zumaya (Sumaya) Mexikar konpositorearen disko bat, edota berrien bila ari nintzen, eta hara! ZUMAYA (eta Sumaya) hitzak sartu ondoren, 77.000 sarrera baino gehiago agertu zaizkit pantaila aurrean. Sarrera batzuei klik egitera ausartu naiz, eta harriduraz piztu eta puztu egin naizenez, Baleike-n zenbaiten emaitzak azaltzeko premian aurkitu naiz. Ikus dezagun, beraz: gutxienez hiru kontinente gure herri honen deitura zaharrarekin agertutakoak:

Lehengoa eta halako oohhhhh!!!!!!! triste batez saiheatsak dardarka jarri didana, "Zumaya" Afrikan, Kamerungo ipar aldean desagertzeaz dagoen hizkuntza bat da, oso hitzun gutxi geratzen omen dira...

Sumaya, herrialde musulmanetan, abizen ezaguna da, baita emakume izena ere. Jordanian, "Princes Sumaya College" aurkitu dut; hau da, Sumaya printzesa ere badugu.

Gaztelaniaz zorigaitzoko hegazti baten izena omen (Chotacabras, ezta, Aitor?); hor dago García Lorcaren poema: "Como canta la zumaya...". Zenbait ipuinetakoa protagonista ere aurkitu dut Zumaya deiturarekin ("Zacarias Zumaya era un hombre comprensivo y razonable" eta abar...). Ardo beltz bat: Zumaya Crianza 1999 Bodegas Finca el Carpio Ribera del Duero 100 % Tempranillo. Lasterketako zaldien genealogian, hispano-arabiar eder baten izena: Zumaya-1967 (zaldiaren argazki eta guzti!!). Adelgazar y dietas.com-en jakin izan

**ilargi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak:  
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua  
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Erretegia  
OIKIA 945447083



dut gimnasio bat dagoela gure herrian (2004an eta Zumaya? "Y" grekoaz???? Non lokartu ote dira hauek?).

Amonite, Geologia eta Mikroorganismoetan adituak ere Zumayan egindako ikerketak, zeharo aldrebesak diren izenburuekin ere ikusi ditut, (Adibidez.: RECONSTRUCCIÓN PALEOAMBIENTAL CON FORAMINÍFEROS PLANCTÓNICOS Y CRONOESTRATIGRAFÍA DEL TRÁNSITO. PALEOCENO-EOCENO DE ZUMAYA ETA BIOESTRATIGRAFIA CON FORAMINIFEROS PLANTÓNICOS DEL TRANSITO DANIENSE/SELANDIENSE DEL CORTE DE ZUMAYA...).

Balenziagan, 60ko hamarkadan, "Polensa 1-2-3 eta 4" egindako itsasontziak, argazki eta guzti. Santa Cruz de Tenerifen "Calle Zumaya", Txilen Zumaya Hego Ameriketako musika talde bat. Mexikon: Psikiatra-Sexologo bat, Mario Zumaya, harremanetan laguntzeko "La Infidelidad" liburuaren egilea, eta Gerson Zumaya Nolasco eta Daniel Zumaya futbol jokalaria. Europa iparraaldean batere ulertu ez dudak. Zumaya: als je kiest voor diepgang en kleinschaligheid...

USA ingurukoak, berriz, han 44.780. abizenik zabalduena omen da, adibidez, "Joel Zumaya " Detroit Tigers-eko jokalaria oso ospetsua baseball zaleen artean. Eta arrakasta handia duen Zumaya-Publications liburu argi-

taletxea (sarrera guztien erdiak, gutxi gorabehera, hone-nak dira), Phoenix eta Kanadan hedatuta dagoena. Kaliforniako, 5772Merlos Avenue-Hollywood-en, "Zumaya's " Mexikar sukaldaritza eskaintzen duen jate-txea, eta Your true hero - benetako heroien orrialdean, ez dakit zein inbasio edo gerratan hildako Liliana Zumaya-

ri, bere anaia Braulio Zumayaren poematxoa, "God bless America..." amaitzen duena. Amador Zumaya, aktorearen berri ere izan dut.

Azkenik, eta bukatzeko, begira ezazue Villasumaya.com-en, paradisuaren antzeko zerbait aurkituko baituzue, Guatemalako Atlikan Lakuaren inguruan dagoen hotela (Sumaya), Maya-ren eremuetan New Yoga egiteko leku aproposa; halaxe dio iragarkiak.

Ah!, eta bila ari nintzen Mexikoko konpositore barrokoa, Manuel de Zumayari buruz, ba, zera,1678-1756 bitartean bizi izan zela (hau da, Bach baino lehenago jaio, eta ondoren hil), Mexiko hiriburuan hazi, eta Oxacan organista eta nola ez apaiz zela; musika kolonialari sekulako bul-tzada eman omen zion. Hainbat obra, operak (italieraz, garaiko gustuan...), diskoak ere ikus daitezke, beste autore batzuekin batera, eta erretratu bat ere bai; argi ikusten da mulatoa dela. Aupa Zumaya!!!!

**"Zumaya (eta Sumaya)  
hitzak sartu ondoren,  
77.000 sarrera baino  
gehiago agertu zaizkit  
pantaila aurrean"**

**GANBARA**  
Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

**Zumaia Hotela**

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64

**ILEAPAINDEGIA**  
**TRUITZ**

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760

## Ipurdi bistan

**K**ultura judeokristaua ezarri zenetik, gorputza tapatzera behartuta egon gara. Gorputza izatez hain ederra eta liluragarria dena

tentazioaren eta bekatuaren sorburutzat jo izan da. Jadanik, 2000 urte baino gehiago igaro ditugu ilunpe horretan murgilduta, baina badirudi, pixkanaka bada ere gauzak aldatzen ari direla.

Norberaren nahiz besteen gorputza den bezalakoa izateko eta onartzeko biluzik ibiltzea bezalakorik ez dago. Haatik, oraindik orain, seme-alaba askok ez dituzte haien gurasoak eguneroko edozein egoeretan (dutxatik irteetan, komunean...) larru gorriarik ikusi. Eta hori ezinbestekoa izango litzateke txikitatik gure sexu organoak gorputzeko beste edozein atalen moduan diren bezalakoak onartzeko. Belarriak batzuk besteak baino handiagoak ditugu, batzuek besteak baino begi politagoak dituzte... baina gure gorputza bere horretan onartu eta maitatu behar dugu. Zergatik orduan hainbeste buru hauste eta iskanbila ipurdi bistan ibiltzeko? Batzuek besteak baino titi handiagoak edo pitilin txikiagoa izango dute, baina gorputzeko beste edozein atalen moduan. Askoz konplexu gutxiago izango genituzke eta zoriontsuago izango ginatke hondartzan guztiok larru gorritan ibiliko bagina. Ura zure gorputzeko atal guztietan sentitzea bezalako gauza ederrik ez dago, eta lagun batekin bazaude askoz ere hobeto! Baina, zoritxarrez, oraindik urrats asko eman behar ditugu egoera horretara iristeko.

Hondartza batzuetan (Zarautzen, Donostian...) nudistentzako lekuak badaude, baina hainbat pertsonaren begirada lizuna etengabe zure gorputz gainean sentitzea ez da oso eroso. Hala ere, bost axola bazaizu inor zuri begira egotea, lasai asko ken ditzakezu trapu eta bainujantzi guztiak! Bestela, hondartza bakarti bat topa dezakezu udako berotasuna zure larruazaleko leku guztietan sentitzeko. Erabat lasaitu eta zure gorputza eta bihotza poztu nahi izanez gero, hondar gainean biluzik egotea bezalakorik ez dago! Eta biluzik egoteko uda baino garai hoberik ba ote dago? Beraz, badakizue saiatu aurtengo udan zuen gorputzeko tentsio guztiak askatzen! Eta ez ahaztu etxeetako kisketa guztiak kentzeaz!

Ondo-ondo pasa uda eta saiatu ahalik eta gehiena gozatzen!

Ihintz Linazisoro



## Sukaldaritza Baratxuria

**B**aratxuriak atalez osatutako erreboila dauka sustraitzat, eta zurtoin luze batetik ateratako lore txuri-morekak. 200 bat espezie baratxuri daude.

Asia erdialdekoa da jatorriz, baina ia mundu guztian landatu eta erabiltzen da. Historian zehar, sendagile eta jakintsu askok goraiatu dute, hala nola, Hipocratesek, Galenok, Paracelsok... eta Biblian ere aipatzen da. Egiptiarrek naturaz gaindiko ahalmenak egotzen zizkieten, eta greko eta erromatarrek asko erabiltzen zuten. Erdi Aroan, sendagileek, gaixoak zaintzeko (batez ere izurria zutenak), baratxuriz bustitako zapi batez estaltzen zuten aho-sudurra.

Bere osagaien artean, hainbat bitamina eta mineral gai daude, entzima eta hormonak... Usain sarkorra osagai sulfuratuek ematen diote, ahalmen sendatzaileak ematen dizkietenak horietan.

Sukaldaritzan asko erabiltzen da eta ahalmen sendatzaile ugari ditu: desinfektatzaile, garbitzaile, tentsioa jaisteko, antiseptiko, antibiotiko eta bakterioen aurkako, berotzaile, pizarazle, estimulatzaile, zizareen aurkako, bihotzaren indartzaile, antidiabetiko, kolesterolaren aurkako, defentsak igotzeko, antiartritiko, urdaileko azidoak indartzeko...

Era askotan erabil daiteke baratxuria, baina egokiena gordinik jatea da, egosketa eta frijidurak bere ahalmenak gutxitzen baitituzte. Zukuan ere har daiteke, edo bere estraktua pilula eta perlatan ere saltzen da. Olio edo ez-titan ere bera daitezke baratxuriak. Kanpotik ere erabil daiteke, zuzenean hortz bat karets eta kailuetan igurtziz.

Baratxuriak jan ondoren, gorputzeko sekrezio guztiek usaina hartzen dute (arnasa, izerdia, pixa, emakumeen esnea...); arnasaren usaina maila batean ekiditeko, sagarra, perrexila, menta edo erregaliza murtxika daiteke. Usaina ez da ona izaten, baina ez ahaztu baratxuriak dituen ahalmen guztiak...



Izaga Garcia Dietista eta iridologoa

**Kresala**  
edergintza

Amaia Plaza  
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

**D'Ana**  
Steapaindegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

**EGOKI**

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



ibilbideak

## haitz-gibel superportuen mehatxupean

XABIER ARANGUREN

Uda sasoiari kostaldera hurbiltzeko grina pizten da eta etxetik oso urrutira joan gabe baditugu xarmaz betetako hainbat paraje. Horietako bat Jaizkibelekoa dugu. Zoritxarrez, denok dakigunez, superportuaren mamuak mehatxatzen ditu bazter hauek. Ibilbide honen bitartea ibiltaria portuaren eraikuntzak egingo lukeen sarraskiaz ohartuko da. Beraz, joan eta konta ezazu.

Gure ibilbidearen lehenengo pausoak Pasai Donibane-ko herrian emango ditugu. Bere Kale Nagusitik bueltatxo bat emanez, zuzen-zuzen ekingo diogu txangoari, Pasaiako "fiordoaren" irteerarekin batera itsaso aldera hurreratzu. Arando Handiko Branka heldu baino lehen Kalaburtza senaiaren barnean eskuinera malda gogorrean igotzen den pistatik segituz gero, eta goraxeago ezkerretara joaz, talaia

batera iritsiko gara, eraikin batzuen ondoan. Bertatik Jaizkibelgo kareharrizko ertza segituko dugu aldamenetik doan bidezidorrari jarraituz.


Bidean itsasoaren ikuspegiak eta oteaz gozatuko dugu eta oso sentsazio desberdinak sentituko ditugu. Mitxitxoia inguruko gainaldera heltzen garenean, ezkerreko zelaitik, labarrak eta mendi basati honen aurpegi ezkutatuak ezagutzeko aukera izango dugu. Aurrera segituz, gurdibidetik eraikin zahar baten aurriak ditugu. Hortik gora segi eta errepide nagusira eramango gaitu. Orain errepidetik kilometro bat egin behar dugu ezkerreko pista batetik desbideratzeko jaitziera baten ondoren. Garai bateko pista militarra dugu aurrerago. Iturria eta pago bakartu bat pasa ondoren, eskuinera desbideratuko gara, beheeraka oraingon. Harizti baten ondoan dagoen bihurtune batera iritsiko gara laster, eta eskuineko pistari 400 bat metro egin eta

**Erreferentziak:**

- Zestoa: 0 km
- Akua: 1 km
- Ereio baserriak: 3 km
- Ipintza: 4,3 km
- Santa Engrazia: 6 km

**Ezaugarriak:**

Iraupena: 2-3 ordu  
Luzeera: 6 km (joan)  
Igo beharrekoa: 450 metro



**OHARRA:** errepidea eta Gaztarrotz artean dauden erreka zulo eta bailarek aukera ematen dute itsas ertzera jaisteko, beraz, ondo neurtu behar dira indarrak eta distantziak, gero garraio aukerak eta konbinaketa egokiak bilatzeko.

**AHOLKUA:** Zumaiatik joateko ez da beharrezkoa lokomozio tresna pertsonalak mugiaraztea. EuskoTren eta Donostia-Pasai San Pedro autobus lineak erabiliz, bukarran ferrian gurutzatu daiteke Pasaiaiko "fiordoa".

**GOIKO BODEGOIA**  
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861191



**Antonio Etxabe**



*Gizonezkoen erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

**AR** Ricardo J. Azcue Yeregui  
Abokatua • Aseguruak  
Finika Administrazioilea

txomin aguirre 4, behea  
20.750 zumaya (giuzkoa)  
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651  
Fax: 943 862746

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412

Pasaiaiko superportua kokapen honetan eraiki daiteke.



gero, zelai zabalera aterako gara. Aurrerago, haritz, lizar eta gorostiz osatutako baso bat topatuko dugu. Inguru horretan zegoen Lete baserria.

Basotxo horretako gorosti baten azpian "Iñaki" idatzita duen harri bat dago. Ez da leku txarra mokadutxo bat hartzeko. Nahitaezko atsedendiaeren ostean, berriro ere bideari ekin behar, eta eskuinaldean entzuten den errekaen bila joango gara beherantz. Hortik aurrera, ibilbideko zatirik politena geratuko zaigu. Bidezidorrak eta errekek, bere putzu eta ur gardenekin, itsasoraino jaisten dira eta bertara hurbiltzeko gogoia ematen digu, inguru honetan itsaslabarra ez baita hain bortizki itsasoratzen.

Pixka bat aurrerago pista batean bukatuko da bidetxoa.

Gaztarrotz baserria senaren ingurutik hain zuzen. Gero pista 400 bat metro segitu eta Pasaia eta Hondarribia arteko muga egiten duen hesira iristen gara. Hesi hori erreferentzia dugula, maldan gora segituko dugu Jaizkibelego tontor nagusiraino (Iskulin, 543 metro). Bertan gotorleku baten aztarnak daude, baina baita beste osagai batzuk ere: pistak, antenak, zaborrak, etab.

Pasaia itzultzea besterik ez zaigu geratuko. Beraz, mendiaren ertzari segitu eta 3,5 kilometro egin ondoren errepidearekin topo egingo dugu. Lehen egindako zatian, asfalto ganean, kilometro bat egingo dugu beherantz, eta eskuinera joaz bihurgune batera aterako gara. Arrokaundietako Gotorlekutik Pasai Donibanera itzuliko gara.

## SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

*fidatzeko baimen guztiak*



- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatu

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

jexux etxabe mitxelena

## “Kia eta sua. Negargarrixa izan uan hura, gu bagiñikien-eta zulo hartan Gernika zegola”

ABELIN LINAZISORO

...jarraipena

**Gernika bonbardatzen ari zirenean, zuek jabetu al zineten gertatzen ari zenaz?**

Bai. Mendi tontor hartatik dana ikusi ginien. Herrixa ez uan ondo ikusten baina abioiak zertan ari ziren bai. Hamazazpi abioi edo gehixo izango ituan eta ederki ikusten ginien Gernika parera ailegatzean nola egiten zuten behera. Eta buelta atzea berriz. Kia eta sua. Negargarrixa izan uan hura, gu bagiñikien-eta zulo hartan Gernika zegola. Gau hartan bertan, gure aitta, dana kezkatuta, eta Erramun Gernikara jatxi ituan. Gure anai zarra Gernikako kuartelean zegoan-eta, Saseta bataloian, eta bizirik zegoen ala ez jakin egin behar ginien. Anaixa bizirik zegoan, baina ikusi zutenakin ikaratuta itzuli ituan.

**Zenbat denbora eman zenuten baserri hartan?**

Ba, Gernika bonbardatu eta egun gutxira Elantxobera jatxi eta Bermeora eramanak izan gintuan. Motor batean. Eta hantxe egon gintuan, baina Bizkaixan gerra bukatu baino lehen buelta egin ginien herrira. Izan ere, Xumaik-eta esaten zigutean aurrera ez juteko, gerra galdua zegola-eta. Eta hala uan. Karrerik ezin zien atera abioekin. Haixen kontra fusilakin jutea, txardanguakin eskopeten kontra jutea bezala uan. Ez zegoan ezer egiterik. Bermeokoak, han geratzeko eta han geratzeko esaten zigutean eta beste pixka batean geratu gintuan, baina egun batean Ondarrurako bidea hartu ginien motor



*“Ama-eta komandantziatik etorri zianean, hark: “Ogixa? Nun dezue?”. Eta guk: “Jan ein deu”. Ezta akordatu ere hura danontzako zala!”*

batean. Joe! Etorri baginen etorri gintuan! Ondarruko komandantiena jun behar eta jun dittuk gurasoak, eta galdetu zien ea zeatik izan ginen herritik bialduak, eta gurasoak, ba, bi seme Bizkaiko frentera jun zizkulako, eta hark, atzea berriz bialduak izatea merezi genula, hi! Asentxixo eguna zala akordatzen nauk. Eta baita ere akordatzen nauk egun hartan gurasoak lauko ogixa lortu (lau kozkor zeuzkan kiloko ogi handia) eta Teodoro eta bixok gera-

tu ginala bakarrik. Ogixa, Teodoro eta ni. Porratzen hasi eta bion artean lauko ogixa oso-osorik jan ginien! Nahixo pastelik eerrena baino! Eta ezeren laguntzik gabe, e! Ez urik eta ez ezer! Ama-eta komandantziatik etorri zianean, hark: “Ogixa? Nun dezue?”. Eta guk: “Jan ein deu”. Ezta akordatu ere hura danontzako zala! Gero, Ondarrutik Zumaira nola etorri ginen ez nauk akordatzen, baina Zumaiko agintarixak herrira sartzen ez ziguten utzi. Pentsa ezak! Herritarrak herrira ezin sartu! Orixora jun behar izan ginien. Amona ere umiakin hara jun eta han bi edo hiru hilabete egin ginien. Han zeozer egin behar eta sotoan antxoari burua kentzera jutun gintuan. Orixotik Zumaira buelta egiteko Zarauzko komandante batek egin zizkigun paperak. Herrikoen aldi hura jator portatu uan. Herrira ailegatu gaittuk eta

hurrengo egunean-edo alkateak aitta ikusi dik moilan, eta, koño Xendua! Hemen al zeate?, eta aittak, bai, hemen gea, ba. Eta alkateak, ba hau segituan arreglatuko diagu. Aiuntamentura eraman eta mila errialeko multa eman zioan, hi! Joe! Mila errial zeinek zeuzkan orduan?! Dedio! Herritik bearek bialdu eta etorri ginalako multa pagatu behar!

**Nola moldatu zineten ordaintzeko? Eta, zer giro zegoen orduan herrian?**

Baten batei eskatuta. Nik zer zekiat, pa! Orixoko etxekoei eskatuta, edo, hemengo osaba mutil zaharren bati, edo, ez nauk akordatzen. Eta giroa zer esango diat, pa? Zumaira itzuli ginaneko hartakoa ezin diat esan ni denbora luzian Orixon euki niñuelako. Orixotik Zumaira 1937ko irailan buelta egin ginien, ni oaindik 12 urteko mutil koxkorra nitzala, eta Gernika Francok bonbardeatu zula nik kalia esango ote nun beldurrez gurasoak, ni Orixora. Ez zegoan ezer esaterik hemen orduan, ba. Bestela, akabo. Danok izorratuko giñuzten! Orixon ez zekiat zenbat denboran egon nintzan, 6 hilabete, 10 hilabete edo urtebete. Amonaren itxian osabekin eta amonakin, ondo. Zumaiko aldian Orixoko giroa askoz lasaiagoa uan. Han ez uan hirekin inor sartzen. Gogoratzen nauk Orixoko panaera batek, nonbait izekok esan zioan zer egin genun Ondarruan, hara ogixa



parrez. Zenbat eta jende gehixo egon, nahixo zian hark.

**Beno, amaitzeko, gerra ondoren hurbileko giroaz esaidak zerbait.**

Hamalau urte arte maristetan egon eta gero lanian hasi nittuan. Herritik bialdutako familiak edo ihes eginda koak, ordurako ixa danak buelta egin da zibitian. Batzuek Bilbotik, besteak Santoñatik, besteak hurreagotik, ahal zuenak ahal zuen moduan, pixkanaka etorri ittuan, Bilbotik ontziz mugaz bestaldera joandakoak ere bai. Eta hemengo bizimodua, berriz, nahiko larria uan. Alkate berrixak maristak bialdu egin zizkian. Solapan bandera española eramatea behartu egin zian, eta jatekoa, berriz, dana rasionatuta zegoan. Guk ogi beltza Bizkaixan ezagutu ginien eta hemen

ogi zurixa egoteakin konformatu behar. Hemen danok goseak hiltzen bizi ginttuan. Bizkaixan baino askoz gose haundi-xo. Han arroza eta garbantzua nahikoa bagiñien eta Ispasterra lapetara jaixten ginttuan. Hemen, berriz... Haitzera ere jutun ginttuan, bai, lapa, maulixua, txoazkinak... Ahal zunak ahal zun tokira. Orduan sagarra nahiko uan eta sagarra ere jaten ginien. Beste ezer ba al zegoan, ba? Olixoa, azukrea eta horrelakoa gauzak ia ezer ez. Ba al dakik etxekoandriak nola prestatzen zuten jatekoa? Olixuen tokian esne gainakin, hark zeukan grasakin. Sebua edo gantza ere erabiltzen uan. Ahal zen bezala!

*“Gure anai zarra  
Gernikako kuartelean  
zegoan-eta, (...) bizirik  
zegoan, baina ikusi  
zutenakin ikaratuta itzuli  
ittuan”*

erostera jutun nintzen bakoitzean galdatzen zidala: "Aizak, Jexux, zuek bien artean zenbateko ogia jan zenuten?", eta nik sanosano: "Lauko ogixa". Eta jende dana

**OSTOLAZA**  
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea  
tel: 943 86 16 66  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com

**Nikol**  **Enea**

**TABERNA**

Amaiako plaza



## Hiru zumaier Munduko txapelketan



Maitane Atorrasagasti eta Aroa Murciano.

Hiru zumaier izango dira aurten pira-guismoko munduko maratoi txapelketan. Gizonezkoetan, nagusien mailan, Oier Aizpurua izango da lehian; emakumezkoetan, aldiz, jubenil mailan, Aroa Murciano eta Maitane Atorrasagasti gazteak. Denek ere, beren onena eman nahiko dute abuztuaren lehen egunotan Norvegiako Bergen hirian jokatu den txapelketa gogor honetan.

Oier Aizpuruarentzat erronka berria izango da honako hau. K-4 ontziarekin Atenasko Joko Olinpikoetatik kanpo

geratu ondoren, Manuel Busto kide duela, maratoiko txapelketan hartuko du orain parte. Espainiako federazioaren ideia izan da hau, fesezkiokoe uste baitute bere ezaugarriak eta sasoi puntua egokiak direla proba honetan lehenen artean egoteko.

Manuel Busto azken lau urteotan munduko txapeldun izan da k-lean, eta, horretaz gain, azken bi urteotan k-2an ere domina lortu du. Mutil hau maratoi munduan onenen artean dago, eta estropadan aurrean ibiltzeko garantia dela dio

Oierrek. Bikotearen asmoa domina lortzea da, eta ahal izanez gero, irabaztea, nahiz eta oso zaila edukiko duten, Oierrentzat aldaketa handia baita 1.000 metroko lasterketatik 40 kilometrora pasatzea. Lasterketa abuztuaren lein jokatu da, eta horretarako hilabete egon da Oier Asturiasko Villaviciosa herrian entrenatzen.

Emakumezkoetan, berriz, bi zumaier izango dira lehian, Itxas-Gaineko Aroa Murciano eta Maitane Atorrasagasti. Osatu duten denboraldi bikainaren saria da Munduko txapelketan parte hartu ahal izatea. Martxoan K-2an entrenatzen hasi zirenetik hori izan zen bikote honen helburua, baita bete ere. Aroarentzat lehen Munduko txapelketa izango da hau; Maitanerentzat, berriz, bigarrena, aurreko urtean Valladolideko txapelketan izan baitzen Maite Amilibia kide zuela. Seigarren izan zen, gainera, orduan.

Ez dira gauzak nahi bezala joan, ordea, txapelketaren atarian, Maitanek lesioa izan baitu ezker besoko hiru ten-doitian. Norvegiara joan baino astebete lehenago ekin diote entrenamenduei, eta, dirudinez, probak ondo joan dira.

22 kilometroko estropada gogorra bete beharko dute abuztuaren lein. Estropada perfektua, akatsik gabekoa egin beharko dutela esan du Aroak, Bergenera abiatu aurretik. Ekialdeko Europako ordezkariak, eta bereziki Hungariakoak, izango dituzte, ziur aski, etsai gogorrenak.

*ilespaindegia*

**I Z E T A**

Urumea, 6 Tel. 943 862083

**LEIZE**

taberna

Juan Belmonte, 6



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

# pintura pintura fabrika zaharrea berriz ere

ISMAEL MANTEROLA

Hainbat urtetan utzita egon ondoren, Zuloaga pintoreak semearentzat Santiago aldean eraiki zuen pintura fabrika zaharra, jatetxe eta Laia museoa izandakoa, erakusketa areto bihurtu dute.

Bost pintorek izan dute erakusketa antolatzeak aukera; Zumaia inguruko hiruk: Keixetak, Anton Egigurenek eta Valentin Manterolak; Mendaroko beste batek, Aitor Etxeberrriak; eta Debako Juan Karrillok. Oso ezberdinak dira pintatzen dituzten koadroak: abstrakzioaren bidea jarraitzen dute Keixetak eta Etxeberrriak, figurazioarena Egigurenek eta paisaia pinturatik datoz Manterola eta Karrillo, nahiz eta lehenak bodegoiak eta irudiak aspalditik landu dituen.

Ez da toki txarra Pintura fabrika zaharra erakusketak jartzeko. Arterako erabili beharreko tokia iruditu zait beti, batez ere Zuloaga Museoa hurre duela eta jabe berberak dituelako. Horregatik, ez dakit zergatik ez den erabaki sendorik hartu orain arte edo, hobeto esanda, ez dakit zergatik ez dagoen erakina arterako erabiliko duen etorkizunerako proiekturik.

Bi solairutan banatutako koadroek elkarketa bereziak egiteko aukera ematen dute. Beheko solairuan, Anton Egigurenek eta Valentin Manterolak jarri dituzte beraien pinturak eta kontrastea egiten dute. Antonen kolore lauez margotutako koadro handiek, Leger eta Matisse arteko oroitzapenak dakarzkigu; Valentinen pintzelada solteak eta kolore ilunago eta nahastuagoak, berriz, espresioa eta formen arteko tentsioa



**Ezkerretik eskubira: Aitor Etxeberrria, Valentin Manterola, Txiki Agirre "Keixeta", Anton Egiguren eta Iñaki Agirrezabalaga kultura zinegotzia.**

adierazten dute. Baten alaitasunak bestearen malenkoniaren aurka egiten du eta Antonen sinpletasuna Valentinen koloreen ñabarduren aurrez aurre jartzen da.

Goiko solairuan, Karrilloren koadroek gela berezia hartu dute eta besteengandik urruntzeko gogo hori ondo dago, ez baitago lotura handirik beste bi artistekin. Paisaiaren eta sortzen dituen argien jokoak lantzen ditu Karrillok, beti ere, kolore ilunekin eta pintzelada solteekin.

Keixetaren koadroak ezagunak dira zumaiarrontzat, eta pintorearen erakusgarri onak ditugu hormetatik eskegita.

Tindatutako paperen bidez sortutako paisaia abstraktuek, hau da, kolore biziz eta lausotuz betetakoe, koadroen konposaketak eratzen dituzte ariketa formal eta sentsualak osatu arte.

Azkenik, Etxeberrriaren koadroak dira niri gehien interesatu zaizkidanak. Azken urteetako pinturaren erreferentziak ikusi ditut (90eko hamarkadako pinturaren "ajeak"), baina interpretazio pertsonalaren galbahetik pasatakoak dira, bai kolore berezien erabilpenari esker, baita egitura formal eta espresioei esker ere.

Merezi du paseotxo ematea, bost pintoreek egin duten esfortzua ikustera.



# ITZALARI ITAKA

**Taldearen sorrera:** 2003an hiru partaide hasi eta gainontzekoak elkartzen joan dira.

**Partaideak:** Aitor (ahotsa), J. Braka eta Unai (gitarra), Jon (bateria) eta Rubio (baxua).

**Influentziak:** Dut, Deftones, Korn, The Bronx, Muse, Kuraia, Sorkun... orokorrean Leize all stars.

**Grabaketak:** Mantan baserrian grabaturiko demoa. Datorren udazken-neguan estudio batean sartzeko intentzioa dute kalitatezko grabaketa bat egiteko.

HAIZE GALARRAGA

Troya filmak gure zinemetan arrakasta duen garai hauetan, kondairako Ulises maltzuraren jaioterria izentzat hartu du Itakak. Homerok kontatu zizkigun borroken pareko abesti gogorrek jotzen ditu Itakak. Gogortasun hori, zati lasaiagoak tartekatuz biguntzen da melodia goxoa-goak bilatu nahian. Ahotsak Jonathan Davisen mugimenduak egiten ditu eszenatokian, intentsitateak bide sinusoidala eramaten du relax egoera batetik garrasi estasi bateraino azkenaldiko metalaren joera jarraituaz. Joera honetatik ateratzen saiatzen dira erritmo astunak eta gitarra

mugimendu asonanteak sartuz, zaldia Troya barrenera bailitzan, ondoren garai-penaren atea irekitzeko. Hitz bakarrean... Braka'n Roll.

Azkenaldian kontzertu dezente eman ditu Itakak eta kontzertu horiei buruz galdera batzuk egin dizkiegu.

### Ze iruditu zaizue sarrera?

-Pasa in haiz, zaldia barreneraino sartzeko gogua dakau ta Troya garaituko de.  
-Homeroren laguntzaz lortuko de, baina gure helburua ez da fama, ondo pasatzea baizik.  
-Jonathan Davis ez, baina Aitor Mentos dakau azkenaldian kantatzen.

### Nun eman dituzue kontzertuak?

-Orio, Bergara, Andoain, Elgoibar, Pagoa (Oiartzun), Irun, Aizarnazabal, Zumaia...

### Talde asko ezagutuko zenituzten, ba...

-Bai, Legen Beltzakin dextentetan jo de, Neu, Kean, Adrenaliced, Trastorno, Sin oficio ni beneficio, Berri txarrak...  
-Portzierto, azken horien managerra ez zitzaigun bate gustau, oso kabroia ta berekoia zen.

**Hainbeste kontzierto jota diruz gainezka eongo zeate...**

-Ez, egia esan kontzertu batzuk ez dizigute ordaindu, adibidez, Zumaiaiko Udalak oraindik kontzieto bateko dirua zor digu.

### **Udalantzako beste eskaririk ba al dezue, diruaz aparte?**

-Lokal gehiago behar dira taldeentzako, haundiagoak eta hezetasun gutxiagorekin. Gero eta talde gehiago dago Zumaian, batez ere gazte punkiak.

-Mugimendu musikal handia dago eta talde gehiagok sartu nahi dute lokaletara.

### **Mugimendu berri hori hurrengo Baleikeren aleetan ezagutarazten saiatuko gara. Zein dira joan zareten kontzieto gogokoena?**

-Korn, Festimaden; Muse, Donostian.

-Farrukito... zebra bide batian ikusi genun pasatzen ta kamixeta bat oparitu zigun.

-Bustamantere hortxe zabilek.

### **Ondo jaten al da kontzertutako afa-rietan?**

-Danetik, adibidez Orion oso ondo jan genuen.

-Pagoan afaltzeko garaian segurata beltz haundi bat etorri zitzaigun zenbat ginen galdezka, koadrilako lagun batzu han zeuden eta...

-Hamalau esan genionean pixkat bildurtu egin ginan, horrelako tipo haundia haserretu ingo zan edo, baina azkenean Itaka bezela, hamalau lagunek afaldu genuen.

### **Orion zer jan zenuten, ba, horren ondo afaltzeko?**

-Bueno etzan beste munduko ezer, entsalada...

-Bateriak etzun batere afaldu nerbioso zeolako

-Xerra, arrautzak, patatak, ta inportantiena, purua ta edariak gratis.

-Afaia ona zan kopa ta purua emate zutelako.



### **Ta... ligatze al da kontzertotan?**

-Ez deu ligatzen ze mozkortu ite gea. Autodidaktak gea.

### **Autodidaktak?**

-(Barreak)

-Bai, Rubiok hautsontziak eta mikrofonoan hankak egiten burdinezko tuboak soldiatuz.

### **Bukatzeke, ze irudituz zaizue elkarriketa? Ez du oso serioa ematen ezta?**

-Txatxi piruli paela manba.

-Ondo pasa deu ta parre in deu kazetarian kontura.

Itakako semeen emanaldiak elkarriketak baino serioagoak dira. Gogo haundia-kin daude kontzietoak eskeintzeko.



# 16

# 17

# 18

# 19

# 20

abuztuak

abuztuak

abuztuak

abuztuak

abuztuak

astelehena, 22:30ean

## Love, actually

Zuzendaria: Richard Curtis  
Aktoreak: Hugh Grant, Liam Neeson, Emma Thompson

asteartea, 22:30ean

## Carandiru

Zuzendaria: Hector Babenco  
Aktoreak: Luiz Carlos Vasconcelos, Milton Gonçalves, Ivan de Almeida

asteazkena, 22:30ean

## Intermission

Zuzendaria: John Crowley  
Aktoreak: Colin Farrell, Colm Meaney, Kelly Macdonald

osteguna, 22:30ean

## El jurado

Zuzendaria: Gary Fleder  
Aktoreak: John Cusack, Gene Hackman, Dustin Hoffman, Rachel Weisz

ostirala, 22:30ean

## Whale rider

Zuzendaria: Niki Caro  
Aktoreak: Keisha Castle-Hughes, Rawiri Paratene, Vicky Haughton

ezarritako barne-arauen arabera.

Komedia dibertigarria ikusi ahal izango da hilaren 17an. *Intermission Vidas cruzadas*-en antzekoa da, baina irlandar erara eta John Crowley hasiberriak zuzendua. Bikote baten harremana eten egingo da eta horrek hainbat egoera sinestezin eragingo ditu, mota askotako pertsonaiekin: polizia zakar bat, autobus-gidari bat, supermerkatuko langile bat...

Ostegunean *El jurado* film estatubatuarra eskainiko da. Thriller judicial interesgarri eta entretenigarri hau Gary Fleder-ek (*Cosas que hacer en Denver cuando estás muerto*) zuzendua da eta John Grisham-en lanik ezagunenetako batean oinarritua. Gene Hackman-ek abokatu beldurgarri baten papera jokatzen du, epaimahaiak aukeratzen eta

manipulatu espezialista den letradu batena. Enpresa boteretsu batek kontratatuko du, epaiketa bati aurre egiteko, baina bere plan zital guztia hankaz gora geratuko da epaimahaikide bat (John Cusack) presionatzen saiatzen denean.

Zikloa *Whale rider* filmarekin, Zeelanda Berriko pelikula independente liluragarriarekin amaituko da. Emakumezko protagonista gaztea (Keisha Castle-Hughes) Oscarretarako proposatu zuten. Pelikulak maorien kultura zaharrera hurbilduko gaitu; kostaldeko herri txiki baten antzinako ohituren arabera, emakumezkoak ezin dira buruzagi izan eta neskak ohitura horri aurre egin beharko dio. Pelikula poetikoa, eszenografia zoragarri batean eta protagonistaren interpretazio bikainean oinarritua.

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

## marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA  
Beizardenda

Basadi 9  
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuzo
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



INMOBILIARIA 943 143361  
BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

DIGITAL+ CANAL+



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A



Arantza Aramendi

EGUZKI  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00




ANA  
ESTILO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

# Azoka, kultura eta gastronomia Euskal Jaian



Abuztuaren 13an izango da Zumaian Euskal Jai eguna. Euskal produktuen azoka, makina bat tailer, bertso saioa, sagardo dastatzea eta erromeria antolatu ditu, besteak beste, Udaleko kultura, festa eta turismo batzordeak. Abarkak oinetan eta zapia buruan dugula, festaz gozatzea besterik ez zaigu eskatzen herritarroi

Goiko plaza izango da ospakizunen gunea lehen orduetan. "Txupinazo koloretzu" batekin hasiko da festa goizeko 10ak inguruan. Aurreko urtean bezala, Zumaia eta inguruko herrietako baserriarrek baratzeako produktuak salduko dituzte. Hauez gain, goizean zehar produktu ekologikoekin

egindako pintxoak eta San Pedro txiki abesbatzak salgai jarritako ogitartekoak dastatu ahal izango dira.

Haurrentzat bi tailer antolatu dira. Bertan, otarrak eta gazta egiten ikasiko dute. Bigarren tailer horretako parte-hartzaileek, gainera, gazta txiki bat eramango dute etxera. Bi erakustaldi ere izango dira. Alde batetik, Eibarko Suoker taldeko errementari bat izango da lanean. Bestetik, Baserriar Emakumeen elkarteak orain urte batzuk koltxoia nola egiten ziren erakutsiko du. Horrez gain, baserriko ohiturazko gaiak (eztia, xaboia, etab.), dultzaineroak, trikitilariak eta Iturengo zanpantzarrak izango dira.

Eguerdiko 12:30ean salda beroa eskainiko du festa batzordeak kofradian. Ordu erdi geroago, San Juan iturri inguruan, balkoitik balkoirako bertso saioa izango da. Balkoi batean Maialen Lujanbio egongo da, eta bestean Jon Maia. Bitartean, Erribera kalean, paella erraldoi bat prestatuko da. Paella hau bera zerbitzatuko da Bazkari Herrikoian. Bazkaria Erribera kalean egingo da, eta txartelak salgai izango dira hilaren 8tik aurrera turismo bulegoan.

Arratsaldeko 6etan ekingo zaio berriro festari. Plazan Laja eta bere taldeak musika eskainiko du eta, 7etan sagardo dastatzea izango da. Aurtengoan, gainera, Ignacio Zuloaga plazara ere zabalduko da festa, sagardo postuak zertxobait sakabanatuko baitira. Triki ta Ke taldearen erromeriak emango dio amaiera Euskal Jai egunari.

<p><b>dekorazioa</b></p> <p><b>ALBERDI</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskaiola</li> <li>• Pladur-a</li> </ul> <p>696 726188 943 143261</p>	<p>ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40</p> <p>Jardinen diseinu ...mantenimendua Nekazaritza zerbitzuak Kiral zelaien mantenimendua Txostenak ... ahalkularitza teknikoak. Balorazioak</p> <p><b>TXINGURRI</b> Koop. Elk. Nekazaritza Injineru Teknikoak</p>	<p>Arrain eta mariskoak</p> <p>Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak</p> <p>Zuloaga plaza, 1 Tel. 943862309</p>
<p><b>GAZTE, S.L.</b> ELEKTRIZITATEA <b>ARGIDENDA</b></p> <p><i>Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko arrietan</i></p> <p>Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402</p> <p><b>TAILERRA: Estazioko kalea, 23</b> Tel. mugikorra: 608 143409</p>		<p><b>EKO URRATS</b></p> <p>INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN ERREGENERAZIO ETA SALMENTA</p> <p>Tel./Fax: 943 143 102 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAIA</p>

## ABUztua

### 1, igandea

18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia Kiñu taldearekin.

19.00etan Zumaiaiko Nazioarteko Musika Jaialdiaren zabaltze ekitaldia.

Bi astetan kontzertu eta ekitaldiak (ikus egitaraua).

22.30ean Zumaiaiko Nazioarteko Musika Jaialdiaren zabaltze kontzertua.

### 5, osteguna

7.30etik 12.00etara XXIX. Kabra eta Dontzeila Herri Lehiaketa.

### 6, ostirala

18.00etan Aita Mari futbol zelaian, ZUMAIKAKO XX. UDAKO FUTBOL TXAPELKETA.

### 7, larunbata

9.30etik 12.30etara XXX. Arrain Txiki Lehiaketa.

19.00etan Kofradiako plazatxoan, SWINGMAS taldearen emanaldia.

Gauerditik aurrera BERBENA BEREZIA Eusebio Gurrutxaga plazan, PASSADENA ORQUESTA famatuarekin.

### 8, igandea

9:30ean. Aste Nagusia

Txirindulari Saria "Joxe M<sup>o</sup> Korta Memoriala".

18.00etan Eusebio Gurrutxaga

plazan, dantzaldia Basajaun taldearekin.

### 13, ostirala, Euskal Jai eguna

10.00etan Txupinazoa eta egitarau zabala: Baserritar Azoka Goiko plazan, eta Iturengo Joaleak eta Euskal Musika Tresnen kalejira.

11.00etan Haurrentzat tailerrak eta trikitalarien saioa.

12.30ean Kofradian Salda

13.00etan Balkoitik balkoirako bertso saioa San Juan Iturrin: Jon Maia eta Maialen Lujanbio.

14.30ean Bazkari herrikoia.

18.00etatik aurrera sagardo dastaketa eta erromeria.

23.00etan Triki Ta Ke taldearekin dantzaldia.

### 15, igandea

09.00etan ZUMAIKAKO KALEKO PINTURA LEHIAKETA.

17.00etan Kofradian Haurrentzat Plastikak Tailerra.

22.30ean Musika Jaialdiaren 20. urteurrenaren amaiera ekitaldia, Eusebio Gurrutxaga plazan, GOLDEN APPLE QUARTET taldearekin.

### 16tik 20ra

Egunero, Arranpla parean, KZ AUTOBUSA zabalik, 10etatik 3etara.

### 16tik 20ra

Gauero, 22.30ean Aita Marin, UDAKO ZINEA.

16: Love actually.



## JULENE AZPEITIA LEHIAKETA

Literatur sorkuntza bultzatzeko asmoz, Zumaiaiko Udalak "Julene Azpeitia XVII. Ipuin Lehiaketa" antolatatu du.

Oinarriak Foronda Kultur Etxean eta Udaletxean eskuratu ahal izango dituzue.

17: Carandiru.

18: Intermission.

19: El jurado.

20: Whale rider.

### 18, asteazkena

19.00etan Zuloaga museorean zabalunean, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barne, Done Jakue bideko kontzertua, Binefarreko Titiriteroak "Camino de Estrellas".

### 20tik aurrera

OIKIKO JAIKAK 20tik 28ra (ikus egitaraua).

### 21, larunbata

10etan Piragua froga: Zumaia-Deba-Zumaia.

### 22, igandea

18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia Kiñu taldearekin.

18.30ean Estropadak: Zumaiaiko

Ikurrina- Euskadiko A Ligako traineru estropada.

### 27, ostirala

21.00etan Itzurungo kantinan, Bertso Afaria Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluzerekin.

### 28, larunbata

15.00etan hasita, BOSTKIROL PROBA herriko kuadrilen kirol erronka.

Iluntzean Kuadrilen arteko kalejirak, Elektrotuna Txaranga Elektroaren ekitaldia kaleatan zehar, Afaria eta afalostekoak.

### 29, igandea

18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia Basajaun taldearekin.

### Abuztuan Pelota:

4, 11 eta 20an Odietan 22.30ean DINASTIA ETXABE Pelota txapelketako partidua.

14 eta 21ean Zestako Profesional mailako partidua.

### IRAILA

### 4, larunbata

19:00etan. Udako Eskubaloiko Txapelketa. Portland San Antonio - Arrate.

### 18, larunbata

OLARRO EGUNA.

### 19, igandea

KOTXERIK GABEKO EGUNA.

11etatik aurrera eta arratsaldeko 4.30etik aurrera, Haurrentzat Parke Berezia, Txu Txu tren, eta ekitaldi ugari. (Ikusi egitaraua).

### 25etik aurrera

ARTADIKO JAIKAK.

**Emilio Perez**  
 Elektrigavio, Injebeista eta instalazio elektrikoan salmenta eta konponketak

**ADI**

BASADI 28  
 20750 ZUMAILA  
 GIPUZKOA

tel. fax. 943 835 157  
 E-mail: adie@euskalnet.net

**AITA MARI**  
**KAFETEGIA**

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 ZUMAILA

**Arkupe**

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

**Galdona**

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
 Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330  
 943 143346

**JATETXEA**  
**LUBAKI**

Basadi Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAILA

**EGUZKI**  
**PUB**

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



# BALEIKERen LEHIAKETA!!

Elhuyar edizioak-ek argitaratu du Gipuzkoa zure esku izeneko mahai jokoa. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokoa da, aisialdian euskaraz aritzeko Elhuyar Fundazioak egin nahi digun eskaintza. Mahai-joko honek (CD Rom batekin ere osatzen dena) bi ardatz nagusi ditu:

- ✍ Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzailleen aurka . Gipuzkoa zeharkatzen duen abentura grafikoa da.
- ✍ Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa , mahai jokoa. Bakarrik ordenagailuan, nahiz familiarekin edo lagunekin jolasteaz gain, joko honek Gipuzkoa osoa ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Ekaineko galdera inork erantzun ez duenez, jokoak bazkideen artean zozketatu ditugu.

Irabazleak dira:

Joxe Mari  
Agirrezabalaga Urbieta

Juan Txapartegi Elosua

Saridunei deituko dizuegu.



**TOMAS TABERNA**  
- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

**AIZPURUA**  
LIBRERIA  
R U D E N D A

Alta-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569

**Xanti**  
ALZARIARIK S.L.

Mota guztietako altzariak  
Xanti Osa

Amia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385

**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569

**ARGIA**  
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224

**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620

**ZUMAI A**  
AUTO-ESKOLA

Praktika eta azterketak Azpeitian  
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

**ile-apaindegia**  
**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



**%20 BEHERAPENAK %15  
ERAKUSKETA ALDATZEAGATIK**

Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

## AUTO ESCUELA ZUMAIÁ

- ① gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- ① praktika eta azterketak Azpeitian
- ① gure helburua:  
gidari trebe eta profesionalak egitea

BASADI, 12 BEHEA

TEL. 943 86 10 18

